



ONDARROAKO UDALA



ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Ondarroako Udalak Ondarroako emakumeen Udal Berdintasun Kontseiluarekin adostutako adierazpena:

2018ko ekainean Ondarroako emakume batek salatutako sexu erasoaren berri izan genuen; Udal protokoloa abian jarri, erasotutako emakumeari elkartasuna adierazi eta babes osoa eskaini zion Udalak. Hiru urte luze hauetan prozedura judizialak aurrera egin du. Epaitegietan, prozesua ez zen artxibatu eta epaiketara heldu zen. Epaia berri izan dugu orain.

Gu ez gatoz bat; epaitegien erabakietatik haratago, guk sinesten dizugu eta gure babes osoa duzu.

Aurreko guztiaren aurrean:

Indarkeria matxista salatzeke eta indarkeria horri aurre egiteko gure konpromisoa berresten dugu, egiturazko berdintasunik ezaren ondoriozko indarkeria horrek emakumeengan dituen ondorio latzei aurre egiteko etengabeko konpromisoarekin.

Ildo horretatik, epaitegien erabakia edozein izanda ere, Udalak eskura dituen errekurtsio guztiak martxan jarriko ditu, indarkeria matxista pairatzen duten emakumei laguntzeko eta babes osoa emateko helburuarekin

Berdintasun balioak oinarri dituen gizartea lortzeko bidean lan egiten jarraituko dugu: emakumeok espazio publikoan askatasunez ibiltzeko eta espazio hori modu librean erabiltzeko; baita sexu-harremanak norekin, noiz eta nola izan nahi dituzten libreki erabakitzeko ere.

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumei diegu: haiekin gaudela, sinesten diegula eta gure babes eta elkartasun osoa izango dutela.